

Sarien eta erakusketaren gainean

1- Gure Artea Saria: diagnostikoa eta hausnarketa

2002ko azaroaren 20an Gure Artea saria eman zutenean eztabaida piztu zen egunkari bateko asteroko arte gehigarrian. Batek "Gure" izenaren atzean dagoen muga geografikoa zalantzan jartzen zuen, beste batek sarien sistema bera zen zalantzan jartzen zuena. Eztabaida sortu zuen alegia, Euskal Autonomi Elkarteke arte sari nagusiak.

Honek Euskal Herrian dauden sarien gain-begirada egitera bultzatu ninduen, jakiteko zein den egoera eta nolakoak diren antolatzen diren ekimen publiko hauek.

Gure Artea 2000 katalogoko sarreran Alicia Fernandezek, urte horretako sariaren arduradunak, ziurtasun handia eta zalantzarik gabeko testua idatzi zuen: "Gure Artea erakusketa aurrerantz doa. Duela hogeit urtetik egiten da, eta orain, berriro, jendaurrera dator, egungo artearen bizitza bertan aurkezteko. (...) Orduko eta oraingo arte berritzaile onena Gure Artean agertzen da. Horrela erakusten dute deialdi guztietan aurkeztutako lanek eta artista irabazleek". Hurrengo paragrafoan berriz horrela dio: " Era berean [sariaren] garapenean parte hartze dinamikoa nabaria da eta, ekimenak egoera aldakorren eta epealdien arabera aldatu bada ere, izatearen beharra, balio artistikoa eta interes kulturala, soziala eta politikoa edozein zalantzatik kanpo daude."

Ez nago horren ziur azken zati honetan esaten duenarekin, azken urte hauetan gehien kritikatu den saria baita Gure Artea delakoa. Sarien gaineko zalantza oso hedatuta dago artisten artean eta Gure Arteak urtero eztabaida pizten du eta gainera azken urtetan idatzitako lekukoak ditugu.

2000. urteko uztailaren 1ean Gabriel Villotak Gara egunkariko Mugalarri gehigarrian honako hau idatzi zuen: " Gure Artea gaur egungo Euskal Herriko sormenaren erakusketa bada, zenbakien ikuskizuna besterik bilatzen ez duen sariak alde batera laga beharko luke eta dirua erakusten diren artelanak behar bezala erakusteko eta parte hartzen duten artistei behar bezala ordaintzeko erabili beharko litzateke. Komunikabideen oihartzun txikiagoa izango lukeen aukera da, baina herrialdean artea sustatzeko erabaki zuzenagoa eta oinarritzekoagoa izango litzateke."

Erakusketa zabaldu ondoren berriz, urriaren 21eko zutabeaz zalantzan jarri zuen Euskal Herriko arteak berezko sariaren beharra eta lurralde mugarik gabeko sari baten alde egin zuen: "Hasieran Gure Artearen helburua euskal artisten arteko prestigidun saria banatzearena zen, horretarako elkartasuna? Adierazten duen izenordea aukeratu zuten. Horrela, bertako artisten lana sustatzeaz gain, erraz nabari daiteke, komunitatea eraikitzeke asmoa dagoela; koadrilaren antza duen banatutako espazioa zehaztearen alde: gu 'ta gutarraok (...) Horregatik guztiz garaikidea den lurraldetasun ezaren kontzeptutik abiatuta, Gure Artearen aldaketa proposatzen dugu eta milioiak banatzen hasiz gero ezusteko zoragarria izango litzateke datorren urteko sarietan, Buenos Airesen jaiotako Rirkrit Tiravanija tailandiarra dagoela adibidez, edo New Yorken finkatutako Vanessa Beecroft italiarra, edo Parisen bizi den Thomas Hirschhorn suitzarra (Bilbon jadanik erakutsi duena bestalde). Ez al litzateke zoragarria izango, ez al litzateke zerbait aldatuko gure buruetan, hemendik aurrera haiek ere *gure* barruan sartuko bagenituzke?"

Hala ere, azken proposamen honekin ados egon arren, zer ekarriko lioke horrelako sari batek autonomi erkidegoko arte sareari? Orain bertako artistek ez badute gehiegi ateratzen, nolako diru laguntzak jasoko litzuzke nazioarteko sari indartsua ezarri ondoren? Erresuma Batuan banatzen den Turner Prize sariak izugarritzko arrakasta du, bai medioetan eta bai arte munduko artean, ez da nazioarteko saria, baina jasotzen duenari ezinbesteko mesedea egiten diote.

Antzeko zalantzak idatzi zituen Peio Agirrek gehigarri berean: "Gure Artea moduko lehiaketaren sorburua 80ko hamarkadan asmatutako artistei bideratutako laguntza politikan

daude. Garai hartan pintura eta horman eskegi zitekeen edozein gauza erakargarria zen (...). Badaude birplanteatzeko gai batzuek: Zein da artista talde edo kolektiboen tokia? Zer gertatuko litzateke adibidez, 'labeldun' artista batek herbeheretako nazionalitatea duen norbaitekin batera lan egingo balu? Edo, herbeheretako Madrildo artista balitz edo Iparraldekoa? ... Anekdotarako tokia ere izango da: emakumeen eta gizasemeen arteko portzentaje, sariak banatzeko orduan ere, lurraldeen arteko ordezkapena, artista baten aldekoen edo kontrakoen 'amorratuak', talde (galeria irakurri) baten edo beste baten barruan dauden artistak..."

Zalantzak azaldu bai, baina irtenbiderik ez aipatzeak konponketa zaila duela esan nahi du?

Egun berean Miren Jaiok idatzi zuen erakusketaren kritikak zalantza hitza zuen azpigitulutzat: "Una crónica dudosa del Gure Artea 2000" (Gure Artea 2000ren zalantzazko kronika). Berak ere identitate arazoak aipatu ondoren sariaren oinarritzko arazo bat aipatu zuen: "Gure Artea saria, beste sari publiko asko bezala, arrunta izatearen arazoia planteamenduan dago. Hain zuzen Gure Artea saria, ia guztiak bezalaxe, piezaren ideia nagusitzen du. Eta hori nabarmena da. Artikulu hau idatzi baino lehen, sinatzen duenak KMko aretoetan paseo ederrak eman zituelako: zenbat toki artelanen artean, bere horretan itxiak baino elkarren aldamenean, batzutan aurrean zutenarekin lotsati elkarrizketan, baina, hori bai, denak duintasuna mantentzen... Eta hori, batzutan, eskertzen da."

2000. urteko Gure Artea sariaren ondoren Rodriguez Fundazioak interneten antolatutako Foroan Gure Artea sariak askotan aipatu ziren eta beti kritika zorrotzak egiteko.

Nik neuk ere Euskaldunon Egunkarian sinatu nuen kritikan, saria zalantzan jarri gabe, arazoak aipatu nituen eta horien arteko batean ados nengoen Miren Jaiok esaten zuenarekin: Gure Artea sariaren ekimena garai bateko artelanaren ideiarik lotuegia zegoen eta banatutako sariak hori egiaztatzeke zeuden.

Baina beste mila kezka ere aipatu nituen kronika hartan. Adibidez, deialdiaren zehaztasun falta. Sarritan esaten da artista gazteentzako sortutako saria dela, eta nik dakidala, oinarrietan ez du horrelakorik jartzen, baina oso arraroa da 40 urtetik gorako artistak aukeratzea erakusketan parte hartzeko eta beraz, sariak jasotzeko. 2000ko Gure Arteako 25 aukeratutako artean gehiengo 60ko hamarkadan jaiotakoak ziren (14), beste 9 gazteagoak ziren (70eko hamarkadan jaiotakoak) eta bi besterik ez ziren 1957an eta 1958an jaiotako artistak. Gure Artearen ordezkari Gure Arte Gaztea izena hartu beharko luke?

Beste arazoa da aukeraketa beran dagoen arrisku eza. Artelana edo artista aukeratzeko denaren zalantza ere etortzen zait burura. Sarritan artistaren zerbait jarri nahi izaten dutela dirudi eta ez artista horren lanik interesgarriena.

Azkenik, erakusketak sarritan izaten duen interes eta indar faltak azalpen bat bilatzera eramanez eta konturatu naiz erakusketan egoten diren ia artelan guztiak ikusita izaten ditugula Gure Artea sariko erakusketara iristen direnerako eta Gure Arteako erakusketan baino hobeto erakutsita gainera. Sariak ere ez dute sorpresa handirik ematen, txandaka-txandaka 30-40 urte inguruko artistei ematen zaie eta aukeratutako 10en artean edozeinek du jasotzeko aukera. Bi urtetik behin 3 horiek jasotzen ez badute, badakigu hurrengoan jasoko dutela.

Sariaren beharra?

Beraz, Alicia Fernandezek aipatutako "zalantza eza" honek guztiak bi irakurketa ditu: bat saria gaizki antolatuta dago. Eta bi, sariak banatzearen formula ez da beharrezkoa gaur egungo artearen munduan.

Lehendabizikoak ez du sariaren izaera zalantzan jartzen eta aldaketak eginez gero sariaren deialdiak eta banaketak zilegi direla onartzen du. Besteak berriz sariaren formula zaharkituta

dagoela deritzo, gaur egungo arteak gaur egungo egiturak edo azpiegiturak eskatuko lukeelako eta sariena, 80ko hamarkadan berreskuratutako XIX. mendetik jasotako herentzia izango litzateke, Peio Agirrek zioen bezala.

Bigarren jarrera honi arazo txiki bat bilatzen diot. Gutxi arrazoitzen da zergatia. Zergatik ez dira baliagarriak oraindik arte sariak? Artea aldatu dela esateak ez du esan nahi guztia aldatu denik edo moldatu ezin daitekeenik egoera berriaren aurrean. Bestalde, arte laguntzeko politika berri ezaren aurrean sariak laguntza moduan onartu daitezke, "arte berri" horrek behar dituen azpiegitura "berriak" asmatu arte.

Zergatik esaten da artea aldatu dela eta sariak zaharkituta daudela berrikuntza horien aurrean? Inork ez du gehiegi azaldu zein den egiten den arte berri hori. Artearen aldaketa asko ikusi ditugu XX. mendean, baina ez zait oso posible ikusten aldaketa handirik sumatzea azken 10 urtetan.

Zein dira artista batentzat dirua irabazteko baliabideak? Bat merkatu pribatua, hau da egiten duena norbaitek erostea. Bi erakundeen dirulaguntzak. Gizarteak pentsatzen du ona dela artisten lana ordaintzea, askotan gizarte baten egoera kulturara bideratzen duen dirutan neurtzen baitugu, eta niri behintzat, ez zait modu txarra iruditzen, jakiteko gizarte baten interesen nondik norakoak.

Badaude bizitzeko beste moduak, adibidez, mezenas on bat bilatzea edo askok egiten duten bezala lan artistikoa ordainduko dion lan arruntetan jardutea. Baina bi bide hauek ez dira momentu honetako eztabaidaren ardatza.

Erakunde publikoen laguntzak ere modu askotakoak izan daitezke. Ikusi dugun bezala erakunde batzuek sariak antolatzen dituzte, beste batzuek nahiago dute artelanak erostea eta besteek berriz sormenerako diru laguntzak banatzea.

Formula guztiek dute aldeko zerbait eta kontrako ia ezer. Ezin dugu alde batera laga sarien ospe eta promozio kontuak. 1996an Xabier Saenz de Gorbearen eskutik Gure Artea sariak jasan zuen berrikuntzarik garrantzitsuena (diziplina sailkapenen eta hierarkien desagertzearekin batera), hurrengo urtean artistari bere lana Euskal Herrikan kanpo erakusteko aukera izan zen. Erakunde publiko batek euskal artisten lana promozionatzeko egiten duen ekimen bakarrenetakoa dela iruditzen zait. Azken ekitaldietan irabazi duten artistei begiraturaz gero ez dirudi Gure Artea oso oker zebilenik. Ana Laura Alaez, Javier Perez, Jon Mikel Euba, Jose Ramon Amondarain, Pepo Salazar, Ibon Aranberri, Iñaki Garmendia, Azucena Vieites, eta abar artista ezagunak bihurtu baitira.

Zein da lehen aipatutako formulen artean egokiena? Nire iritziz hirugarrena, sormenerako dirua banatzea, idealena izango litzateke, nahiz eta kulturara bideratuta dagoen diru urritasunak oso zaila egin guztiontzat zerbait iritsiko denaren ilusioa eta gainera modu egokian banatuko denaren ziurtasuna.

Hala ere, badirudi diru publikoa banatzeko hiru modu hauek helburu ezberdinak betetzeko erabiltzen direla. Ez da ohikoa artista ezagunak eta bidea egina dutenak Aldundiko dirulaguntzak eskatzea. Bestalde, oso zaila iruditzen zait artista gazte edo hasi berri batek Gure Artea saria bezalako bat irabaztea. Azkenik, erosketen politikaren bidez artista helduen lanak beregana ditzakete erakundeek, sarien eta dirulaguntzen trena pasa ondoren.

Agian hiru formulen arteko konbinaketa egokia izango litzateke artea sustatzeko, laguntzeko eta zaintzeko.

2- 2006ko erakusketa

Sariari buruzko eztabaidak eta hausnarketa orokorrak alde batera lagata, zer eskaintzen digu 2006ko Gure Artearen erakusketak?

Lehendabiziko gauza eta nagusia barietatea da. Lan ildo asko daude gaur egungo arte praktikan Euskal Herrian, bai baliabideen erabilpenari begiratzen badiogu, bai edukietan

dituzten asmoetan ere. Erakusketa hau aniztasun horren emaitza da. Horregatik adin ezberdineko artistak bilatuko ditugu, nahiz eta gehienak 70eko hamarkadan jaiotakoak izan (10, 16en artean).

Gaur egungo artista ia guztiek denetik egiten dute, ez daude baliabide batek mugatuta eta esan nahi duenaren arabera, argazkia, bideoa, marrazkia, pintura, musika, instalazioa, ekintza bat edo guztien arteko konbinaketak aukeratzen dituzte. Horretan asko aldatu da azken urtetako artistaren profila. Horregatik zaila da artistak sailkatzea erabiltzen dituzten baliabideen arabera.

Hala ere, erakusketan ondo ikusten da ikus-entzunezkoen eta marrazkiaren nagusitasuna. Marrazkiari asko kosta zaio autonomia lortzea, baina azken urtetan beste baliabideen mailan jarri da eta gainditzea lortu du hainbat zirkulutan. Bat-batekotasun itxura, materialtasun gutxikoa izatea eta erakusteko modu berriak behar izateak modan jarri dute momentu honetara arte bigarren mailakotzat geneukan baliabidea. Abigail Lazkoz, Juan Perez, Txaro Garaigorta, Txuspo Poyo, Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkumek osatutako bikotea eta Jeleton hutsik edo proiektioekin konbinatuta marrazkiak jarri dituzte erakusketan.

Bestalde marrazkiei mugimendua ematea ere artearen lehendabiziko mailara pasa da eta animazio bideoak edo animazioa erabiltzen dituzten artelanak moda-modan daudela esan behar dugu. Itziar Barrio, Txaro Garaigorta, Mikel Louvelli eta Txuspo Poyoren adibideak ondo baino hobeto erakusten dute egora berria (agian ez hain berria).

Bideoak egiten dituztenak ere kontuan izan behar ditugu eta erakusketan Miren Arenzanaren joko dibertigarria ikusteaz gain, inguru soziala aztertzen duen Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkumen bideoa ikusiko ditugu, azken hori instalazioa baten barruan sartuta.

Marrazkiaren eta ikus-entzunezkoen ugaritasuna kontuan izan arren beste baliabideak ez dira desagertu eta lehen bezain interesgarri izaten jarraitzen dute. Pintura adibide onak ditugu erakusketan Iñaki Grazenaren, Aitor Lajarinen eta Ismael Iglesiasen lanetan.

Badirudi eskultura espazioaren hausnarketan babestu dela eta mota guztietako instalazioak ikus ditzakegu erakusketan: Mainer Lopezen espazioaren eraldaketa zuria, Aitor Lajarinen pintura eta material ezberdinak elkartzen dituena, Asier Mendizabalen objektu, mezu eta ikuslearen inplikazioa bilatzen duena eta Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkumen gertakizuneko eskenatokiak.

Azkenik argazkigintzak aurreko urtetan izugarrizko gorakada izan ondoren, bere onera itzuli dela dirudi. Argazki guztiak balio handikotzat izan ditugun garaia pasa da eta orain proposamen interesgarriak bakarrik iraungo dutela uste dut. Erakusketan dauden proposamenak bezala, Aitor Ortizen asmatutako espazio huts eta monumentalaren argazkiak eta Begoña Zuberoren memoria duten giza bizitzarako hiri espazioen gaineko proiektua.

Baina baliabideen bidez egindako sailkapena baino gehiago edukietan eta esanahietan sartzea gustatuko litzaidake, alderdi formal hutsak ez baitio ematen arteari bere zentzua.

Modu batera edo bestera inguruaz aztertzen dituen artelanak nagusi dira erakusketan. Testuinguruaz aztertzeko aukera artista askoren lanetan suma dezakegu, adibidez Juan Perezen marrazki eta beste lanetan ironiaren tresna erabiltzen du inguratzen gaituen gizartea, memoria, politika, portaerak, erlijioa eta abarren gaineko hausnarketa egiteko. Antzeko zerbait gertatzen da Txuspo Poyoren marrazki eta bideoekin, nahiz eta ironia ez erabili. Anbiguotasuna eta subjektibitatea indartsu azaltzen dira lan horietan.

Asier Mendizabalen lanetan alde politikoa nabarmenagoa da. Testuinguruari azalpena emateko azken hamarkadetan gertatutakoa gainbegiratzea ezinbestekoa da eta mendebaldeko kulturak izan dituen oinarriko ideien azterketak egiten ditu, non eta nola dauden ikusteko. Txaro Garaigortaren irudiak poetikoagoak izan arren, badute kezka soziala edo gure mundu global honetan gertatzen denaren aurreko galderak. Immigrazioa da Txarok aztertzen duen gaia marrazki eta animazioaren bidez, emakumearen ikuspuntutik gainera, gure

mendebaldeko munduaren zati honetan dugun hutsune handienetakoari arreta jartzeko: lortu ditugun eskubideak ez zaie guztiei iritsi.

Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkumen instalazioan ere inguru hurbila aztertzeko aukera eskaintzen zaigu. Hiria gure bizitzaren eskenatokia da, baina nolakoak dira hiriak sortzen dituen sareak? Etxe berriak betetzerakoan espazioarekin harreman berriak sorrarazten ditugu, ez bakarrik gure etxeko espazio pribatuarekin, baita espazio publikoarekin ere.

Begoña Zuberoren argazkiek proiektu interesgarria azaltzen dute. Memoria da gure gizarte azkar honek baztertzen duen alderdietako bat. Poloniako hiriburuan dagoen bizitzak aurrekariak izan ditu eta ondorengoak izango ditu. Argazkigintza memoriaren aztertzeari oso lotuta egon da, nahiz eta azken urtetan beste gai ezberdinetara zabaldu, baina oraindik aproposa iruditzen zait, horrelako proiektutan sakontzeko.

Beste artista multzo batek artearen baliabideak aztertzen ditu edo artistaren rola artea izeneko azpi egitura kulturalen. Pinturaren aukerak bilatzen jarraitzen dituzte Iñaki Grazeneak, Ismael Igleziasek eta Aitor Lajarinek. Ia guztiek espazioan zabaltzen duten pintura egiten dute edo erakusteko modu berrietan hausnartzen dute. Iñaki Grazena eta Ismael Igleziasek, bakoitzak bere modura, antzekotasun handiak dituzte teknologia berriek sortu dituzten irudiak aztertzeko orduan. Biak ahalegindu dira pintura espazioak sortzen, birtuala izan zitekeen pintatutako aretoak eraikitzen. Biak informatikak sortu dituen irudi berriak irudikatzen erronkan saiatu dira.

Aitor Lajarinen instalazioak zatiz betetako sareak dira. Baina oraingo honetan, informatikaren sareen eragina izan beharrean, hirigintzaren sareak sortzen dituen harremanak aztertzen ahalegindu da.

Aitor Ortizen argazkiak ere baliabideari buruzko hausnarketarekin batera, hau da argazkiak duen ahalmena existitzen ez duten espazio errealak sortzeko, artelanaren helburu estetikoa azpimarratu nahi du. Gizakirik gabe, baina gizakiak eraiki dituen egiturak argazkiaren bidez trukutzen dira irudi ederrak aurkezteko, ikuslea txunditu, gozatu, kezkatu eta harritu dezan.

Aitor Ortizek bezala, aurreko artista hauek guztiak asmo poetikoa azaltzen dute beraien lanetan, era lirikoagoan Aitor Ortizen kasuan edo pinturaren hedapenetan Lajarin, Iglezias eta Grazenaren kasutan.

Maidier Lopezen lana ere atal honetan sartu beharko genuke. Alde oso formala dute Maidierren lanak, baina forma horren kontra egiteko erabiltzen duela dirudi. Espazioan hedatzen den pintura izan da Maidierren ezaugarri nabarmenena, baina kolorea espazioa eraldatzeko tresna moduan ikusi dut askotan eta kolorea desagertu denean, espazioa bera ere lantzeko gai da artista, barne kontraesanak azaleratzeko. Erabili ezin den espazioa da Maidierrek erakusketan jarri duena, betea eta zuria, eskultura, instalazioa eta pintura izan zitekeen artelana, berdin da.

Miren Arenzanak ironia erabiltzen du Juan Perezek bezala, artistaren rolaren gaineko bideo dibertigarria egiteko. Jolasa lehia nola bihurtzen den ondo adierazten du Mirenen bideoak eta objektu bat eskuetatik nola irteten duen erakusteak aitzaki ona izan daiteke, artea eta artistak, edo hobeto esanda, arte munduaren hutsaltasuna adierazteko.

Subjektibitatearen zama handiagoa ikusten dut beste arte multzo batzuetan. Abigail Lazkozen eta Jeletonen marrazkiak alde batetik, eta Itziar Barrioren animazioak bestetik, mundu pertsonalak erakusten dizkigute, barne identitateak ikuspuntu oso pertsonala ematen die irudi hauei.

Azkenik Mikel Louvelliren bideoak aurreko guztien ezaugarriak betetzen ditu. Begirada subjektiboarekin batera, bideoaren barne egiturak aztertzen ditu, batez ere denborarena, ekintza sinpleak behin eta berriz errepikatzearekin. Bestalde interpretazio politiko sozialagoa ere bilatu daiteke harriak erortzen diren edo eraikinak erortzen diren bideo

laburretan. Hain zuzen, *Garai Txarrak* izena zuen Louvellik bideo hauekin batera aurkeztu zuen beste batek. Bideozelatari buruzkoa zen eta gazteen ekintza bortitzak azaltzen ziren bertan.

Erakusketako artelanak

Baina erakusketan dauden artelanei buruz sakonago hitz egitea gustatuko litzaidake. Horretarako Miren Arenzarekin hasiko naiz. *Heart's game* interpretazio ezberdineko bideoa da. Alde batetik 60ko hamarkadako estetika itxuraz baliatzen da ironia sartzeko. Bestalde bikote harremanari buruzko metafora izan daiteke arteaz baliatuta. Bihotzeko kontuak eskultura edo diseinatutako objektu bat eraikitzearekin parekatzen da eta horrek lehian sartzen ditu emakumea eta gizona. Aurrean dituzten zatien bidez artelana zeinek eraiki dezake azkarren? Neska da garailea, bere begiradak gizonaren entzumena garaitzen du eta berak bukatzen du bion arteko eraikuntza.

Alde pertsonala edo harreman pribatuaren esanahia izan badezake ere, ezin da artearen gaineko erreferentzia saihestu. Arte munduan artista izatea lehiatzen hartu daiteke eta lehia horretan emakume izan edo gizaseme izan ez da gauza bera.

Musikaren erabilpenak eta planoen arteko tartekatzeak bideo dinamikoa eta sinpatikoa egiten dute, baina azaleko itxura duen formak esanahi sakona ezkututzen du.

Oso ezberdinak dira Itziar Barrioren animazioak. Lehen esan dudak bezala, subjektibitatearen esparruan sartuko nuke esaten duena, baina nola esaten den eta azkenean hartzen duen esanahi orokorra marrazki sinpleak erabilita interesgarri egiten dute *No te alcanzo* (*Ezin zaitut harrapatu*) eta *Amaren gauzatxoak* izeneko animazioak.

No te alcanzo ezintasunaren gaineko irudi ederra da. Marrazki sinple baten bidez gizakiak bere gorputzaren parte den aulkia hartu nahi du, lurtean eserita baitago. Baina gizakia eta aulkia bat izateak ezinezko ahalegina bihurtzen du eguneroko bizitzan erraza den keinua. Ikus-entzunezkoen baliabideen gainean dituen trebetasunari esker gizaki-aulkiarekin sufritzen dugu eta ezintasunak ditugun gizakiak garelako konturatzen gara.

Amaren gauzatxoak ez da horren dramatikoa, nahiz eta hasierako irudi lasai eta arrisku-gabeak bideoaren une batean beldurra emateko gai bihurtu. Esku tartean poltsak dituen urrutitik datorren emakumearen irudia gero eta hurreago dagoenean benetako aurpegia erakusten digu, poltsatik irteten diren bi zomorroen bidez. Ezkututako aurpegia erakusten digute, bere sena kontrolatzen duenaren emakumearena alegia. Enkargutan dabilen ama arrunta izan daitekeenak baditu bere alderdi ezkutatuak eta amari edo emakumeari orokorrean eskatzen zaion aurpegia erakusten dute erosketen poltsen barruan dauden mamuek. Amaren irudia musika sinpleak eta lasaigarriak laguntzen du, baina une batean, isiltasuna dagoenean, poltsa barrukoak azaltzen dira eta desagertzen direnean berriz ere lasaitasunera eta musika inozente samarrera bueltatuko gara, ama atzera nola doan ikusteko.

Txaro Garaigortak animazioa marrazkiz laguntzen du eta horrela bideo instalazioa eraikitzen du erakusketara aretoan. Txaro Garaigorta *Aeropuertos* izeneko seriean lanean dabil aspalditik. Inorenak ez diren pausu leku hauetan jende asko dabil. Hala ere jendearen joan etorria ez da askea eta ez da berdina hor dabilen jendearen abiapuntua eta helmuga. Immigrazioari buruzko irudiak eskaintzen dizkigu Txarok aireportuen metaforaren bidez eta gainera oso gutxitan hitz egiten den immigrazio mota bati buruz hitz egiten digu: emakumearena. Afrikan bertan geratzen den emakumeak edo gure artera lanera datorrenak laztasun bikoitza jasaten du, immigrantea izatearena eta emakume izatearena. Txaroren marrazkien bidez bidai horien irudi poetikoak ikusten ditugu, abioien ibilbideak irudikatze erabiltzen diren marren bidez irudikatzen ditu emakume afrikarren ibilbide mentalak eta fisikoak. Hormetan ikusten ditugun marrazkiak bideoan mugimendua hartzen dute eta bidaiaren irudi indartsuagoak bihurtzen dira.

Pinturaren gaiak bideak zabaltzen jarraitzen du eta azken urtetan espazioan zabaltzen asmatu du eta irudi berrien kompetentziari aurre nola egin dion konturatu gara. Azken aukera hau da Iñaki Grazeneak lantzen duena. Teknologia berriek irudiaren gaineko eztabaida piztu du beti, gure begiek behin eta berriz ikusten dituzten irudiak ez dira orain dela 40 urtekoak. Telebistak eta ordenagailuak irudien aurrean jartzen gaitu eguneko ordu askotan eta ezinezkoa da, gaur egun, irudi horien aurreko oroitzapena ez duen norbait bilatzea gure artean. Gainera mundua ikusteko era aldatu digu, xehetasuna eta osotasunaren arteko harremana ez da lehen bezala, horregatik hainbat gauza luparekin ikusiko bagenu bezala handitzen ditu abstrakzioa eta errealtatea ez den zerbait berria lortzeko. Grazeneak irudi horiek aztertu ditu eta pinturara eraman. Pinturak beti irudikatu du gizartean zeuden irudi nagusiak. Gure gaur eguneko paisaia ohikoena ez da natura edo beste gizakiak, inguratzen gaituen errealtatea birtuala da, aurrerapen zientifikoaren bidez ezagutzen duguna, telebistaren bidez dominatzen gaituen publizitatea eta ordenadoreak eskaintzen digun informazio zabala, baina azalekoa.

Pinturak gure munduari azalpenak emateko balio du eta Grazenea horretan ahalegintzen da eta aldi berean pinturak berak, baliabide artistiko moduan dituen aukerak bilatzen ditu. Gaur egun zaila da, pintatzen duen edozeinentzat pinturaren barne hausnarketari ihes egitea. Horregatik, jakinda azken emaitza produktu estetikoak izango dela, pintoreek pinturaren zergatiak bilatzen jarraitu behar dute. Baina ba al dago gure artean emaitza estetikoak ez duen artelanik? Gure munduaren estetizazioari buruz hitz egiten dugunean, egin al daiteke estetikoak ez den arterik?

Beste pintorearen adibideak ere antzekoak dira. Ismael Iglesiasek irudi berrien eta pintura espazioan nola zabaltzen den aztertzen du. Teknologiaren irudiei oso lotuta dagoen pinturak beti du subertsio ñabarduraren bat. Hainbeste iragartzen den espazio birtualaren mundua aspalditik eta errazago egin izan du pinturak. Gainjarritako planoak edo elkar eragintzen diren sakontasun ezberdineko planoak pinturak azken mendean asko aztertu ditu eta gainera gainazala laua zela jakinda eta, askotan, aldarrikatuta.

Ismael Iglesiasek, Grazeneak bezala, hiru dimentsiodun pintura bilatu nahi izan du une batean. Inguratuko gaituen pintura sortzea artista askoren ametsa izan da urtetan eta instalazioak egiten ere aitzindari izan ziren abangoardietako artista batzuek. Horregatik ordenagailuak ematen digun aukeraz baliatuta baina errealtatera pasa dituzte bi pintore hauek asmo horiek eta ikuslea alde guztietatik inguratzen duen koadroa egin dute azken urtean.

Hala ere Grazeneak teori zientifiko batzuen erakargarritasuna erakusten badu, fraktalena batez ere, Ismael Iglesiasek konbinazioen eta permutazioen matematika teoriak erabiltzen dituela iruditzen zait. Asmo teoriko eta zientifikorik gabe noski, behin eta berriz pinturarako motiboak elkartzen, aldatzen, errepikatzen ahalegintzen da, pinturarako irudi berriak sortzeko. Sarritan espazioaren gaineko hausnarketa ere nagusia da bere pinturan eta baliabide piktoriko hutsen bidez hirugarren dimentsioa lortzea helburuetako bat da. Horregatik Grazenearen pinturan bezala egitearen garrantzia, pintatzearena alegia, biak artisautza eta teknologiaren artean mugitzen dira.

Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum aspalditik ari dira *Meanwhile in the living room...* proiektua lantzen. Sozializazio moduei buruz hitz egiten duela iruditzen zait. Alde batetik kamerak ematen duten errealtatea eta bestetik guk geuk espazioa nola moldatzen dugun aztertzen ari dira. Espazio publikoaren gaineko hausnarketak garrantzi handia du bikotearen lanetan. Orain dela urte batzuek terrorista bati egindako elkarrizketan edo Camillaren proiektuan gizarteratze motak zein diren eta prozesuak nolakoak diren ikertzea gustuko dituztela azaltzen zuten. Ez da gauza berria esatea komunikabideek, batez ere telebistak, gure bizitza moldatu dutela eta harremanak izateko moduak zeharo eraldatu dituela. Telebista espazio publiko moduan ulertuta Iratxe eta Klaasen lanetan modu batera edo bestera azaltzen

da. Erakusketa aretoan plato bat eraikitzen dutenean plaza publikoaren antza hartzen du, baina ñabardura handi batekin, erraz moldatu edo manipulatu daitekeen esparrua da. Baina ez al da beti horrela izan? Plaza publikoan esku hartzea politika eta boterearen helburua izan da historian zehar. Hala ere iraultza burgesak lortu zuen espazio pribatua edo intimitatea, telebistaren garaitik aurrera ez dira espazio publikoarekin alderatuta hain ezberdinak.

Bestalde, gure hiriak kameraz beteta daude eta horrek espazio publikoa ulertzeko beste modua onartu behar dugu. Iratxe eta Klaasen proiektuan bertan Herbeheretako hiri bateko kalean zegoen kameratik jasotako irudiak ikus ditzakegu. Antzeko zerbait gertatzen da Bilboko etxebizitza berri batetik jasotzen diren irudiekin. Kasu horretan kamera artistena da, baina kalea edo auzo berria nola moldatzen dugun erakusten digute, guztia noski egongelatik begiratuta.

Las Lilas de Jeleton izeneko marrazkiak alegiazko mundua eraikitzeke erabiltzen dituzte Jesus Arpal eta Gelen Alcantarak osatutako artista bikoteak. Jeletonek garai bateko marrazkien estiloa erabiltzen dute gaur eguneko erreferentziak eskaintzeko. Errenazimentutik aurrera erabilitako marrazkiak dira Jeletonen oinarria. Marrazki horietan alderdi estetikoaz gain marrazkiak zerbait esateko erabiltzen ziren, idazkera antzekoa zen eta kode jakin batzuen bidez gizarteak onartutako baloreei buruz hitz egiten zuten. Alderdi plastikoa eta esanahiaren arteko harremana bilatu nahi dute *Las Lilas de Jeleton* marrazkietan, esanahi garaikideak noski. Gure munduari buruz era alai eta ia naif batean hitz egiten digute marrazkiak, ezer esan nahi ez balute bezala azaltzen zaizkigu, sakoneko gaiak aztertzen. Gizarteko kodeak edo baloreak bizirik irauten dute nahiz eta arteak gaur egun ez zabaldu, horregatik marrazkiak balore horiek irudikatzen dituzte eta ia barregarriak direla konturatzen gara, zineak edo publizitateak horrenbestetan aurpegiatzen dizkiguten gauzak (eta normalizat hartzen ditugunak) marrazkien bidez irudikatutakoan.

Ezin dut Robert Altmanen izenburu bereko filma ez gogoratu Aitor Lajarinen *Vidas Cruzadas* (Bizitza gurutzatuak) lana ikusten dudanean. Filmean bezala bizitzaren mapa marrazten du Aitorrek eta bide, errepide, lorategi, etxebizitza eta jendea ikusten dugu. Guztien arteko harremana da instalazioa, baina jendearen bizimodua koadro txikitik azaltzen digu, espazio intimoak eta publikoak dira irudietan pintatuta daudenak eta horrek harreman mota infinituak sortzen ditu artistak bat bestearen hondoan jartzen dituenen edo bat bestearekin kalea dirudien lerro baten bidez lotzen duenean, edo hormaren goiko muturrean isolatzen duenean.

Hain zuzen, Altmanen filmean bezala, pertsonaien bizitzak gurutzatu egiten dira harremana izan gabe batzutan edo harreman ezberdinak izateko bestetan. Gurutzadurak ia automatikoak dira, giza borondateak erabaki gabekoak eta hiriaren espazioak bultzatuta egongo balira bezala. Azkenean Aitorren sareak gizakiaren bakartasunari buruz edo halabeharrari buruz hitz egiten dutela dirudi, gizakiak bakarrik azaltzen dira betetzen duten koadrotxoetan eta besteekin harremana izateko bide bakarra pintatutako lerroa da, baina lerro horrek nolako harremana ez du adierazten.

Abigail Lazkozen marrazkiak gure bizitzari buruz hitz egiten dizkigute. Gure bizitzaren logika eta ez logikari buruz, horregatik egonezin pixka bat eragiten dizkigute. Ipuinen ilustrazio forma batzuetan edo oraingo honetan bezala irudi handi moduan, gure begien aurrean jartzen dizkigun irudiak ispilu efektua egiten dute. Gizaki moduan egiten ditugun gauzak hausnartzeko modukoak dira eta askotan ez dugu horrelakorik egiten, ondoriok kontuan hartu gabe.

Artistak asmatutako forma berezien bidez gure ingurua ezagutzeko aukera ematen digu, hausnartzeko eta ia ikuslea iritzia ematera bultzatzen du. Ezin da aldeko edo kontrako jarrera hartu gabe geratu. Paper zurian airean dabilzan karratu txikiz eraikitako pertsonai eta forma beltzak lan oso pertsonala sortzen lagundu diotela iruditzen zait, askotan

deformatutako irudiek hobeto islatzen baitute gure aurrean duguna, literaturan hartzen diren baimenen antzera. Gauza bera gertatzen da izenburuekin; sarritan anbiguoak eta zailak egiten zaizkigu, baina irudiari laguntza ezinbestekoa ematen diote.

Bestalde umorearen eta biolentziaren erabilpenak gizakiaren barruan dagoena ondo baino hobeto azaltzen du.

Espazioa beti izan da Mainer Lopezen kezketako bat. Pinturaren bidez espazioa bereganatzen joan da eta hasieran horma erabili bazuen ere espazioan eragiteko, gerora mota guztietako espaziora zabaltzeko joera erakutsi du: barne espazioaren gaineko egiaztatzea eta kanpo espazioaren ezagupena.

Horrelako lan bat aurkeztu du Gure Arteako erakusketan. Okupatu duen aretoa zutabe forma bidez ezagutzen dugu. Zuriz pintatutako koloma luze eta meheen bidez espazioa zeharkatzen gonbidatzen gaitu. Mainerrek beti erabili du kolorea eta argia espazioa bereizteko, ez hainbeste espazioan zabalduetako pintura moduan, baizik eta ikusleari espazioaren existentzia egiaztatzeko. Mainerren lanen aurrean askotan dudak sentiazioa, norbaitek ageriko zerbait erakusten digunean dudak berbera sentitzearena da: bai badakit, ikusi dut, hor dago, baina ondo fijatuz gero edo hobeto begiratu gero beste esperientzi mota batzuek sumatzen ditugu.

Erakusketan dagoen *Zutabeak* izeneko lanean jakina denaz konturatzeko bultzada ematen digu sotiltasun izugarriarekin gainera. Kolore ezak eta formak sortzen duten argiaren bidez, arkitektura, eskultura eta pinturaren artean dagoen zerbaiten aurrean gaudela pentsarazten digu. Modu batera edo bestera Dan Flavinen fluoreszenteen moduko lana dela iruditzen zait, kolorez, argiz eta formaz osatutako espazioa (pintura?).

Sinpletasunaren eraginkortasuna da Mikel Louvelliren bideotan nabarmendu dezakeguna. Erortzen ari diren harriak edo eraikuntzak, beste ezer ez da gertatzen bideo horietan, baina horixe bakarrik dago irudien atzean?

Izan daiteke. Gaur egungo arteak eguneroko gauzen aurrean edo arruntak diren gertakizunen aurreko erakargarritasunaren aldeko joera handia izan du. Horregatik harrien euria azaltzen duen animazio bideoa horretan gera daitekeela uste dut, nahiz eta irakurketa ezberdinak eman.

Gauza bera gertatzen da egurrez eraikitako etxe forma duten egituren erortzearekin. Guztiok izan dugun erakargarritasuna azaltzen digu, baina suntsipena edo katastrofearen irudi bihurtu dezakegu, porrotaren metafora ez denean.

Gainera bietan ikus-entzunezkotan oinarrizkoa den zerbait aztertzen duela iruditzen zait, denbora alegia. Harriak eta egurrezko egiturak erortzen filmatzeak denboraren pertzepzioan errazten du eta ekintza behin eta berriz errepikatzeak ñabarduretan konturatzeko laguntzen gaitu.

Uberbau izeneko lanak Asier Mendizabalen urtetako kezkek azaltzen dizkigu: gizarte egiturak, boterearen eta hiritarraren arteko harremanak, identitatearen kontraesanak, boterearen biolentziaren erabilpena, eta abar. Oraingo honetan egunaren banaketa hirukoitzaren gaineko hausnarketa egiten du. 8 ordu lo, 8 ordu lan eta beste 8 aisialdirako erabili behar omen dira. Utopia politiko sozialak eta jarraitu dituzten bideak Asierren kezka dira. Horregatik kartela, eskuorriak edo pankartak azaltzen dira bere instalazio askotan. Ideiak gizartean zabaltzeko izan dituzten bideak artearen zabalbideekin batera parekatzen ditu eta dokumentalismoa eta artearen arteko lanak erakargarriak dira Asier Mendizabalentzat.

Modular argazki seriearen ondoren *Muros de luz* (*Argidun hormak* edo *Argiaren hormak*) izeneko honetan Aitor Ortiz eskulturara hurbiltzen da berriz ere *Destructurasen* egin zuen bezala. Arkitektura eta eskulturaren arteko irudiak ikusten ditugu, harrobi bateko hutsunetan sortutako argizko zulotan eta horrek eskulturaren formetara eta ehunduretara hurbiltzen gaituzte, guztia efektu piktoriko batekin. Horregatik aurreko bi lanen sintesi

moduan ikusten dut Muros de luz delako argazki sorta hau. Formen aurreko interesa, baina Modularren ikusitako arkitektura eta ehunduren gaineko hurbilketa piktorikoa. Azken emaitza edertasun izugarria duen irudia da. Asmatutako irudiak dira, existitzen ez duten espazioak irudi ia abstraktuak bihurtzen zaizkigu, errealtatea eta irudimenaren arteko nahasketa ederra lortu du Aitor Ortizek argazki hauetan.

Zaila da eskultore batzuen lanen erreferentzia baztertzea, adibidez Txillidaren alabastroak edo Michelangelo beraren materialaren gaineko erakargarritasuna. Horregatik irudi mistiko xamarak dira argazkietan ikusten ditugun argitutako hutsuneak, Michelangelok berak harrobian ikusten zituen harri aproposen antza hartzen dute. Kontzeptuak argia izango balu bezala.

Egitura handi eta monumentalak gizakiaren presentzia ukatzen dute. Ez dakigu non dagoen eta nolakoa den eskenatoki hori sortu duen gizakia, gizakiak egindakoa bada behintzat.

Aitor Ortizen irrealitasun ametsezkoaren kontrastean azaltzen zaizkigu Juan Perez Agirregoikoaren lana. Errealtate zuzenari eta egunerokotasunari lotuta dago Juan Perez. Akuarelaren teknika sotilaren eta dotorearen bidez, lan batzuetan gogorak, askotan barregarriak eta noizean behin garratzak pintatzen ditu. Umorea tresna egokia da gaur egungo gizarteari buruz hausnartzeko. Gure kontraesan politiko eta sozialak azaltzen dituzten gaiak talka egiten dute lan egiteko moduarekin. Urmargoak azkartasuna eta askatasuna lantzeko erabili izan dira eta emaitza estetiko ederra espero dugu horrelako teknikaren eskutik. Horren ordez marrazki ezerosoak ikusten ditugu, gure egunerokotasun estitizatuan enbarazu egiten duten gaiak: hildako emigranteak, terrorismoaren bonbak, erlijioaren, kirolaren eta politikaren gezurrak eta hipokrisia, hedabideen indarra, eta abar.

Hain zuzen hedabideak dira Juan Perezen irudi askoren abiapuntua. Egunkarietan argitaratzen diren argazkiak hartzen ditu gero koloreztatzeko eta iruzkinak jartzeko. Baina orokorrean hedabideen estrategiak interesgarriak egiten zaizkio Juani eta eraldatu egiten ditu edo agerian jartzen ditu. Horrekin lotuta dago pankarten erabilpena. Eskaera sozialak edo politikoak zabaltzeko erabili ohi diren tresnak esaldi absurdoz betetzen ditu gure kontraesanetan harrapatzeko eta aldarrikapen kolektiboa izan behar zuena esaldi subjektiboa bezain sinplea bihurtzen da, nahiz eta izugarritzko garrantzia izan. Azalekoa dirudiena egia borobila bihurtzen da Juan Perezen pankartetan eta kolorez idatzitako paperetan.

Open 24 hours (Zabalik 24 ordu) Txuspo Poyoren egunerokoa da. Ameriketako Estatu Batuetako lehendakariaren hauteskundetan egindako egunerokoa da hain zuzen. Artista New Yorken zegoen bitartean Espainiako egunkari batek hauteskundetako berriak nola ematen zituen aztertu nahi zuen, bai esaten zena, bai irudien bidez ikus zitekeena. Informazioaren erabilpena eta norberaren gain duen eragina erakusten digute marrazki hauek. Txuspo Poyok ondo ezagutzen zuen Espainiako egunkarian argitaratzen zen gaia Estatu Batuetan bizi zelako, eta horrek, iruzkinak egitera bultzatzen zituen. Egunkariaren orriaren gainean berriaz azaltzen den testuak eta argazkiak ematen dion informazioa osatzen du bere esperientziaren bidez. Egunkaria eta artistaren egunerokoak kontraste handia egiten du eta bide batez informazioaren iturriei buruz eta fidagarritasunari buruz hausnarketa egitera bultzatzen digu. Inprimatutako hizkiak eta argazkiak informazio objektiboa izan behar dute eta eskuz idatzitako eta marraztutakoa berriz norbaiten burutazioak egindako iritzi subjektiboa; eta alderantziz balitz?

Ambientes hostiles (Giro arrotza) ezberdina da teknikan baina ez oso ezberdina asmoetan. 3 dimentsiotan egindako animazioa kontrastez beteta dago, marrazki bizidunen xalotasuna du, baina gai gogorra dela konturatzen gara dituen irudiak eta entzuten ditugun hitzei kasu eginez gero. Gauza arruntak esanahi berezia har dezake marrazki bizidunetan. Mailua eta iltzea objektu bat besterik ez dira, lanabesak zerbait egiteko, baina bizitza hartu

ondoren esanahia zabaldu diezaiokegu eta menperatzaile eta menperatua bihurtu daitezke, edo zerbait eraikitzeko elkartu diren lagun bikotea. Anbiguotasun horretan dabil Txusporen bideoa. Filmetan erabiltzen diren baliabideak erabiltzen ditu, adibidez kamara moteltzea edo narrazioaren suspensea, tentsioa, elipsea. Bestalde teknologia digitala errealtasuna emateko erabiltzen du askotan, adibidez ehundurak azaltzea asko interesatzen zaio, baina guztia birtualitatearen barruan. Organikoa eta ez organikoa ere erabiltzen ditu, naturalak diren gauzak edo bizirik daudenaren itxura egiten duten iltzeak, espazio zeharo artifiziala denaren kontra jartzen ditu. Horrela izenburuak dion giro arrotza lortzen du eta nola ez gure ingurura ekartzeko tentazioa ematen digu, unibertsalizatzen dugun aldi berean.

Begoña Zuberoren *Warszawa* seriea proiektu zabal baten azken bigarren urratsa da. 2001ean Erroman hasitako lanak historian eragina edo garrantzizko erabakiak hartu zituzten tokiak argazkitan azaltzera eraman du. Ez dute dokumentazio asmorik, Begoñaren asmoa ez da tokiak azaltzea besterik gabe, toki horietan gertatu zenaren aztarna irudikatzea da argazkien bidez nahi duena. Proiektuaren lehendabiziko bi urratsetan, Italian eta Alemanian eraikuntzak historiaren lekuko bihurtu zituen, baina oraingo honetan, Polonian egin duena, jendeak protagonismoa hartu du eskenatokiarekin batera, herrialde horrek izugarrizko aldaketa jasan baitu azken urtetan eta lekukotasun zuzena emateko gai da. Aurrekoetan tokiak jendearen aztarna erakusten zuen, Poloniako hiriburuan ateratako argazkitan berriz jendeak aldaketaren lekuko zuzenena da, arkitekturan ez baita islatzen aldaketa historikoa eta jendearen aztarna. Stalinen poloniar herriari oparitutako jauregiak ez du gaur egungo poloniarren egoera islatzen, aldaketak handiegiak eta azkarregiak izan dira eta. Horregatik jendeari egindako argazkiak iraganean geratutakoak eta etorkizuna izango duten umeak.

Aldaketa horrekin batera kolorea sartu du eta aurreko argazkiak zituzten denbora ezaren itxura zertxobait aldatu da, nahiz eta beste garai bateko irudiak izaten jarraitu. Horretan ez dute aldaketa handirik aurreko seriekoekin, zuri beltzak sentimenduen karga kentzen bazioten ere, orain kolorearekin ez da gehiegi aldatu jendearen eta eszenatokien itxurak ez baitu aukerarik ematen sentimenduetarako. Varsoviak aurreko tokien ildoak jarraitzen du, gogorazteko eta ahazteko tokiak dira. Ahazteko eta gogoratzeko gerrak desagerrarazi zuelako, ahazteko eta gogoratzeko berreraiki zutelako, ahazteko eta gogoratzeko komunista izena zuen antolaketa politikoa zuelako, ahazteko eta gogoratzeko, azkenik, kapitalismo bortitzaren ezarpenaren hiriburua izan delako.